

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Administratibo berezia

Espediente zenbakia: KU7-2

**BERMEOKO NESTOR BASTERRETxea ARETOAREN KUDEAKETA INTEGRALA
EGITEKO KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIA
BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1.- KONTRATUAREN XEDEA.-

Kontratuaren xedea hau da:

Bermeoko Nestor Basterretxea Aretoaren kudeaketa integrala egitea.

1.1.- Esleipendunak, zine komertzialaren kudeaketa osoa egingo dau. Horretarako, esleipendunak egokia dan proiektore digital barri bat eta beharrezko osagarriak instalatu egin behar dauz aretoko kabinan. Ezaugarriak, baldintza teknikoetan agertzen dira.

1.2.- Esleipendunak, Bermeoko Udalak eskaintzen dauzan ikuskizunak eta kultur taldeek, herriko artistek zein hirugarrenek eskaintzen dabean ekitaldiak aurrera erroteko beharrezkoa dan asistentzia teknikoa bermatuko dau.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen dan dokumentazio teknikoagaz bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa dauka.

2.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA.-

Zerbitzua kudeatzeko epea, urte batekoa izango da, urtez urte luzatu ahal izango dana, 5 urtera arte gehienez, Udalak egoki ikusten badau.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA.-

Zinema komertzialaren kudeaketarako, Bermeoko Udalak 22.000 € arte + bez urte batean ordainduko dau. Luzapena guztiak egiten badira, 110.000 € arte + bez izango lirarteke.

Aretoa zinema komertzial modura erabiltzen ez dan kasuetan, ezin da zehaztu prezioa, Bermeoko Udalak kontratua indarrean dagoan epean antolatuko dauzan ekitaldi kopurua ezin dalako aurreikusi. Halanda be, azken urteko gastuen datuetatik abiatuta, erreferentzia modura, ondorengo aurreikuspena egin da.

Kultur ekintzetan asistentzia teknikorako, prezio estimatua 11.000 € + bez urte batean izango da. Luzapen guztiak egiten badira, gehienez 55.000 € + bez izango litzateke.

Baita, zinema komertzialagatik, ikusleek ordaindutako tarifak, enpresari jagokoz.

4. FINANTZIAZINOA.-

Kontratua 2015. ekitaldiko aurrekontuaren kontura gauzatuko danez, 2015. urteko aurrekontuan sortutako kreditu egoki eta nahikoa egoteari baldintzatuta egongo da esleipena.

Aurrekontuan konpetentziak daukan organoak, ondorengo urteetako aurrekontuetan, zerikusia daukatenak, jagokozan kredituak erreserbatzera konprometitzen da.

5.- ZELAN ORDAINDU.-

Esleipendunak hilerio jagokon faktura bi aurkeztuko dauz modu egokian desglosatuta eta Udalak onartu ondoren ordainketa egingo da, 30 eguneko epean.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.-

Zinema komertzialaren zerbitzuaren erabiltzaileei tarifak urtero igo ahal izango jakez baina igoera hori Kultura eta Hezkuntza batzordeak eta jagokon sailak onetsi beharko dau.

7.- BERMEAK.-

Berme horren zenbatekoa hau da:

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dauzela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar dau. Berme horren zenbatekoa 1.650 €koa izango da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliiodunekoa izango da, esleipena proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen diranetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen danean, esleipendunari bermea itzuliko jako, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badagoz.

8.- KONTRATUA BURUTZEA.-

Zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekaz bat etorritz kudeatuko da.

Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, interes publikoko arrazoiengaitik aldaketak egiteko aukera izango dau, baldin eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikulua xedatutakoak betetzen bada eta 108. artikuluari jarraituz.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian finkatutako baldintzak zehatz jarraituz.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daian beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

Era berean, aitaturako Errege Dekretu Legegileko 209. artikuluen arabera, Administrazioak, bai esleipendunaren ez betetzeagaitik eta, baita be interes orokorrak halan eskatzen daualako, zerbitzuan esku hartzeko, zerbitzua kentzeko edota zerbitzua iraungitzeko ahalmena izango dau, esleipendunak eduki leikezan indemnitatze eskubide edo betebeharren kalte barik.

9.- ESLEIPENDUNAREN LAN EGINKIZUNAK.-

Kontratua amaitzen danean, kontratuaren xede diran lanak burutu dabezan pertsonen kontsolidaziorik ezin izango da gertatu inondik eta inora, kontratua egiten dauen Sektore Publikoko langile modura. Enpresako langileak kontratudun enpresearen menpe egongo dira berariaz, eta honek baino ez dauz eukiko enplegu-emole izaerrearri jagokozan eskubideak eta betebeharrak eurengan. Era berean, enpresa kontratudunak ezin izango dau ordeztu eskaintzan ezarritako langilerik, administrazioaren baimen zehatzagaz ez bada.

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete beharko dauz (I. eranskina).

Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek betetzen ez badira.

Zerbitzuak emoten jardungo dauan enpresek, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guziak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz burutuko beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko dau, beti be, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriari buruzko ekainaren

11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak dirala-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen dau eta nahitaez bete behar dauzan legezko betebeharez, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko dau kontratu honek arautzen dauzan atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin daukazan harremanak amaitu ostean be, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo dau. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diran neurri teknikoa eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horreek aldatu edo galdu ez daitezkan eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme legez, II. eranskin legez agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez badauz betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horreen ondorioz sortu daitekezan erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen badauz alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez dabezan bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badau datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen badauz kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailezat joko da, eta erantzun beharko deutsez berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daiekizan erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen jakezan kalte-ordainei be, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak dirala eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli beharko jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentuagaz batera.

- Gainontzekoei emondako baimenak:

Administrazioak eta zerbitzuaren Zuzendaritzaek euren gain hartzen dabezan kontratuak eta kudeaketak ez ezik, kontratistek norbanakoei, alkarteei, enpresei eta erakundeei zerbitzua ondo beteteko emon beharreko baimen eta lizentzia guztiak bere kontura egin beharko dauz.

Horretarako, kontratistek eraginpeko bakotzak bere eskubideak nahiz eskumenak erabiliz ezarten deutsozan baldintza guztiak onartu beharko dauz, baita zentzuzko eskabide edo gomendio guztiak be, baldin eta horreek Administrazioaren eretxiz komenigarriak izan zerbitzuaren ibilera onerako.

- Baldintza Plegu hau eta ganerako arau aplikagarriak aplikatzearen ondorioz sorturiko legezko betebeharrak ez ezik, kontratistek honako betebeharrak honek be eukiko dauz:
 - a) Zerbitzuak ezarritako jarraitasunarekin emotea eta norbanakoei zerbitzu hori Baldintza Teknikoek ezarritakoaren arabera erabilteko eskubidea bermatzea; ganera, bidezkoa izanez gero, onetsitako tarifetan jasotako ordain ekonomikoa egitea.
 - b) Kontratuaren ondorioz legez eskatu daitekezan zergak ordaintzea, baita egin beharreko jardueren araberrako betebeharrak fiskalak be.
 - c) Instalazioak eta elementu osagarriak egoera onean kontserbatzea, beharrezko konponketak eginez. Instalazio horreek itundutako helburuetarako bakarrik erabiltea.
 - d) Instalazioen zaintzeari, jendeari tratu ona emoteari eta ibilirearen ganerako baldintzak beteteari jagokenez, udalak hartu eta jakinarazotako banakako aginduak eta jarraibideak aplikatu beharko dira.
 - e) Udalak ezarritako baldintzak beteten dabezan pertsona guztiei, zerbitzua gozaten eta erabilten itziko jake.
 - f) Kontratuaren iraupena amaitutakoan, edo lanak amaitzen diranean, instalazioak eta elementu osagarriak jaso diran egoera berean itzultzea.
 - g) Itzitako instalazioetan edo emondako zerbitzuan hobekuntza edo aldaketarik ez egitea, Udalaren berariazko eta formazko baimen barik, horrek ekimenaren ondorio negatiboari buruzko erabagia hartuko dau.
 - h) Kontratua burutzeko Administrazioaren ondasunak edo instalazioak baimen barik ez besterentzea edo zergapetzea.
 - i) Langile guztien itxurea, garbitasun eta higienezaren erantzukizuna hartzea, baita instalazioak erabiltzen dabezan herritarren tratu egokiaren erantzukizuna be; instalazioak eten barik egongo dira funtzionamentuan.
 - j) Zerbitzuaren ordena ona zaintzea, eta horretarako bidezko aginduak emon ahal izango dira, 279. artikuluan aitaturiko polizia podereen kalte barik.

Baldintza teknikoetan adierazotako bestelakoak.

10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BAJAKEZ.-

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dagozan langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengaitik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortu leukiezan kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratistek, zerbitzurako modu orokorrean, erantzukizun zibileko aseguru sinatuko dau, alderdi orokorrean, patronalean eta amaituriko lanen arloan, eta kontratistea eta azpikontratistea bertan babestuta egongo dira, gitxienez 250.000 €tako zenbatekoan,

kontratuaren betebeharrak garatzearen eta zerbitzua betearaztearen ondorioz gainontzekoei egiteko moduko kalte zuzenatarako eta zeharkako kalteetarako.

Zenbateko hori txikiena eta banaezina izango da, baina gainontzekoei sortu leikiezan eraginetara hedatuko da, zerbitzu osoari jagokonez, kontratistearen erantzukizunari eskatzeko modukoak diran neurrian (indarreko araudiaren arabera eta bidezko jardute guztien bitartez).

Aseguru hori kontratatu arren, kontratistek bete egin beharko dauz erantzukizun guztiak, eta, beraz, Aseguru Konpainiak ezarrita daukazan ez-betete guztiak bere gain hartu beharko dauz.

11.- KONTRATUA ALDATZEA.-

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehazetan be kontratua aldatu ahalko da, zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaintzen dabean tarifak aldatuz.

Aldaketok, kontratuaren erregimen finantzarioari eragiten deutoenean, Administrazioak kontratista konpentsatu beharko dau, kontratua esleitu zanean, oinarritzotzat hartuak izan ziran inguruabar ekonomikoen oreka mantenduz.

Administrazioak hartutako erabakiek zerbitzuaren garapenerako eragin ekonomikorik ez daukien kasuetan, kontratistak ez dau horiengaitiko kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Administrazioak, hurrengo kasuetan, kontratuaren errentagarritasuna leheneratu beharko dau, jagokon alderdiaren alde:

- Administrazioak, interes publikoko arrazoiengaitik, eta I. liburuko V. tituluaren ezarritakoagaz bat etorrituz, kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen dauzanean.
- Administrazioaren egintzek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakartenean.
- Ezinbesteko kasuek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakarre. Baldintza honeetarako Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 231. artikuluan zerrendatutakoak ulertuko dira ezinbesteko arrazoi legez.

Azaldutako kasuetan, kontratuaren errentagarritasuna berrezarpenerako, kasu bakoitzean jagokozan neurriak hartuko dira. Neurri honeek erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifen aldaketa, eta, orokorrean, kontratuaren eduki diran klausula ekonomikoen edozelako aldaketa izan daitezke (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. Artikulua).

Gauzak horrela, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. artikuluan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

12.- ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA.-

Kontratuaren xedea dela eta, ez da zerbitzu hartzerik ez berme eperik aurreikusten.

13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETEN EZ BADAUZ.

Baldintza teknikoaren pleguaren 10. puntuan zehaztutako zehapenak ezarriko dira puntu horretan bertan aurreikusten diren kontratua eteteko arrazoiak ez diren beste kasu guztietan.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK.-

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 286. artikuluetan azaltzen diranak izango dira, 223. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak izan ezik.

Ganera, Udalak kontratua iraungiko dau, adjudikatariak honako betebeharrak honeek urratzen dauzanean:

- Kontratua adierazotako epean formalizatzea.
- Gerta leikezan ezgaitasunen eta bateraezintasunen barri hamabost (15) eguneko epean emotea.
- Ezarritako tarifak eta prezioak justifikazino barik aldatzea.
- Jabari publikoak kontratukoak adierazotakoak ez diran erabileretara bideratzea, udalaren baimen barik.
- Banakako enpresaria hiltzea eta Soziedade emakidaduna desegitea edo porrot egitea, kalte-ordainerako eskubiderik egon barik.
- Egindako adierazpenak edozein unetan ez betetea edo esandako gauzak egiazkoak ez izatea.
- Udalaren eta esleipendunaren arteko akordioa; kasu honetan, adostasunez, ordaindu beharreko kalte-ordaina ezarriko da.
- Baldintza teknikoaren pleguaren 10. puntuan baldintza etengarri moduan adierazotako ganerako arrazoiak.

Kontratua ebazteko, kasuan kasuko espedientea behar da, eta esleipendunak esan beharrekoa entzungo da, 15 eguneko epean; ganera, hori Kontratuzino organoak onetsi beharko dau.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 288. artikuluetan aurreikusten diranak izango dira.

15.- ADMINISTRAZINOAREN ESKUBIDEAK.-

Administrazioari jagoko a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sortu daitekezan zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengaitik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera emotea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. – ESLEIPEN ERISPIDEAK

Formula matematikoen bidez kuantifikatu daitezkeen erispideak: gehienez 70 puntu

a. Proposamen ekonomikoa:

- Kudeaketa zinematografikoa egiteko prezioa bakarra izango da, eta urte bateko prezio proposamena hartuko da kontutan. – gehienez 30 puntu -
- Baina Nestor Basterretxea aretoan ekitaldiak egiteko asistentzia teknikoaren zerbitzuak, banakako prezioak izango dauz. Prezio hori kalkulatzeko, funtzino bakoitzeko banakako prezioa, urte batean estimatutako lan orduengatik biderkatuko da, era honetan: - gehienez 30 puntu -
 - Teknikarien lana: 96 ordu arruntak
 - Teknikarien lana: 36 ordu bereziak (22:00etatik 08:00etara eta domeka/jai egunetan)
 - Atezaintza lana: 192 ordu arruntak
 - Atezaintza lana: 48 ordu bereziak
 - Takilla lana: 32 ordu arruntak
 - Takilla lana: 16 ordu bereziak

Kasu bietan, eskaintza merkeenak 30 puntu jasoko dauz. Aurkezten diran eskaintza ekonomikoetatik abiatuta, eskaintza bakoitzari emoten jakon puntuaketa, ondorengo formula aplikatuzetik agertzen dan emaitza dira: eskaintza merkeena zati baloratzen dan eskaintza, bider erizpide honen gehieneko puntuaketa. Hau da, eskaintza bakoitzak bere puntuaketa jasoko dau, merkeenagaz proportzionalki alderatuta, ondorengo formula aplikatuz:

- $Ob/OI \times 30$

Ob: eskaintza merkeena

OI: baloratzen ari dan eskaintza

30 puntuaketa gehiena.

- b. Kontratu luzatzen badan, 4. eta 5. urtean, hirugarren urteko ikusle kopurua, 15.000 edo gehiagokoa izan bada, hurrengo urteko prezioan deskontu bat eskaintzea, - gehienez 10 puntu.-
- deskontua % 10ekoa bada: 5 puntu
 - deskontua %20koa bada: 10 puntu

Aurkeztutako proposamenen batez besteko aritmetikoa hamar unidate portzentualetan gainditzen daben behe-portzentajedun proposamenak ez-proportzional eta ausartegizat joko dira.

Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erizpideak: gehienez 30 puntu

- a. Nestor Basterretxea aretoaren kudeaketa integralerako proiektua, hau da, zine emonaldiak eta eskeiniko diran lanak, Udalak antolatutako programaziorako: - gehienez 20 puntu –
- Proiektua
 - Programazino proposamen tipoa
 - Eskatutako zine funtzinoak baino gehiago eskaintzea
 - Publizidade kanpainak egitea, sare sozialetan zabalkundea
 - Programazino berezia eskeintzea
 - Ikuslegoa handitzeko proposamenak
- b. Hobekuntzak: - gehienez 10 puntu -
- Ekipamenduaren hobekuntzak: eskatutakoa baino tresneri gehiago eskaintzea, beti ere, zinema hobeto kudeatzeko beharrezkoa danean, aretoaren ezaugarriak kontuan izanda.
 - Beste batzuk

17.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157-161. artikuluetan bat etorritz.

18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.-

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna daukien pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dabe kontratazino-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badabez, eta kontratatzeke debekuren bat ez badabe, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak dirala eta Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 79. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dabe. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emondako ahalorde askietsia erabili beharko dabe. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen danean, ordezkari izateko ahalmena daukala frogatu beharko dau agiri bidez. Bi kasuetan be, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari be aplikatu behar jakoz.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar dau kontratu honen gaiagaz, hau da, zinemako kudeaketa udal eremuetan, eta euren erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material euki behar dauz. Modu berean, kudeaketa hori hori euskaraz egiteko ahalmen eta baliabideak dauzkala kreditatu beharko du.

Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak ondorengokoak izango dira:

- Azken hiru urtetan lizitatzailleak udal zine aretoetan, kontratu honen helburua diran antzeko zerbitzuak kudeatzen izandako esperientzia, datak, hartzailea eta prezioa azalduta. Deklarazioa eta egiaztagiria aurkeztu behar dira.

- Kontratua betetzeko, baliabide pertsonalen aurkezpena

- Kontratua betetzeko, instalatuko dan proiektore digitala eta material osagarriaren deskribapena, jagokon dokumentazioagaz.

- Kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak diran giza baliabide edo langileek euren lanpostuetan euskeraz normaltasun osoz jarduteko gaitasuna eukiko dabe, ahoz eta idatziz, udalagaz zein herritarrakaz izango dabezan harremanak bideratzeko.

Gaitasun ekonomikoa egizatatzeke bideak ondorengoak dira:

- Azken 3 urteetako, antzeko negozioetan izandako negozio-bolumenaren egiaztapena. (VII. eranskina).

19.- . LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIAK AURKEZTEA.-

Kontratazino honen baldintza plegu tekniko-administratiboak, Bermeoko Udalaren web orrialdean eta honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango dira:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO

ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Zapatuetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Lizitazioan parte hartzeko eskariak ondorengo lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu ahal izango dira:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO

ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Zapatuetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

EPEA: 15 egunetan iragarkia publikatzen danetik (159.2 art. edo 143. art.)

Lizitazioan parte hartzeko eskariagaz, lehiatzaileek hiru kartazalak aurkeztu beharko dabez itxita.

(A kartazala). Horretan testu hau idatziko da: “BERMEOKO NESTOR BASTERRETxea ARETOAREN KUDEAKETA INTEGRALA EGITEKO ADMINISTRAZINO KONTRATU BEREZIA XEDE DAUKAN KONTRATAZIOAREN LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA”. Kartazal horretan ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
 - Jagokon Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioagaz kontratatu ahal dauela egiaztatzen dauen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen dauenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeko debekurik ez dauela aitortzea (IV. Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dauzela kreditatzen dabezan ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari jagokon epigrafean hain zuzen be, alta emon deutoela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko dau, uneko ekitaldian bertan hartua badau, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti be, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko dau.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina).
- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako gaitasun ekonomikoa (VII. Eranskina).
- h) 3/2011 Errege Dekretua Legegilearen 75.1.a. atalean jasotako agirian fidantza kaudimena.
- i) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.

*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena emon badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordezkari haurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emonda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diran eta indarrean dagozan zinpeko aitortpena (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu daitezke. Kopiak aurkeztekotan, errekerimendua jaso eta gero, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar dauz. Errekerimendua jasoten dauan parte hartzaileak 10 eguneko epea izango dau hori egiteko.

“B” kartazalaren azpitulua hau izango da: “FORMULA MATEMATIKO BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA” Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Baldintza Administrazioen Orri haueko 16. puntuan azaltzen diran formula bidez kuantifikatu ezinezko irizpide ez matematiko horien inguruko dosierra.
- b) Dokumentazio Teknikoa: eskaitzaileek orrialdeak zenbatuta daukazan dossier bat aurkeztu behar izango dabe, jagokon izenburuagaz. Hala, banan-banan jaso behar dira lehiaketa esleitzeko formula matematiko bidez baloratuko diran irizpideei buruzko alderdi oro.

“C” kartazalaren azpitulua hau izango da: “PROPOSAMENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Proposamen ekonomikoa, eskaintzaileak edo aurkezten dauen pertsonak sinatuta, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. Eranskin gisa agertzen dan ereduaren arabera idatzita.
- b) Ez dira onartuko proposamen honeek:
 - 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak daukiezanak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen dauena argi ikustea eragozten badabe.
 - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioagaz bat ez datozenak.
 - 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dabezanak.
 - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dabenak.
 - 5) Pleguaren III. eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dabenak.
 - 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten daben akatsak edo funtsik ez dabezanak.
- c) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoagaz bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badau salbu.
- d) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dau. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko daz; hortaz, eskaintza ekonomikoak be ezbardinak izan ahalko dira.

20.- PROPOSAMENAK IREKITZEA.-

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean.

A kartazalan sartutako dokumentazioa klasifikatuko dau, eta akats materialak ikusiz gero, esleipendunari hiru laneguneko epea emongo jako, akatsak zuzentzeko (art. 82).

Eskaintzak aurkeztutako epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez, aurkeztutako eskaintzak zabalduko dira jendaurrean Gizarte eta Kultura etxean, Kontratazio Mahaiak erabikatuko egunean.

B kartazala zabalduko da arinago (irizpide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta daudenean, C kartazala (proposamena eta irizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, telefonoz, posta elektronikoz edo faxez.

Ondoren, eta, hala bajagoko, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deutso esleipen proposamena.

21.- PUBLIZITATEA, ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK.-

Prezioaz gainera erizpide desbardinak baloratzen diranez, esleipena 2 hilabeteko epean egingo da gehienez, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Edozein kasutan esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen dan hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen dan parte hartzaileari, errekerimendua egingo jako, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako honeek egiteko (151.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz):

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- d) Baldintza-orri administratibo honeetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diran agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, l. eranskina).

Epe horretan egingo ez baleuz, uko egiten dauala ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko jako aitatutako horreek egin daizan.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko dau.

Guztiagaz, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaillei jakinaraziko jake eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da.

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahalko dute epe honi jagokonez).

Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo deustso esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazinoa egin daian.

Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzailleek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazinoa (156.3 artikulua).

Formalizazioa burutzeko esleipendunak honeek burutu beharko dauz:

- Administrazino honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOn be publikatu beharko da.

Kontratazio-organoak egingo dauen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko dau.

Esleipendunaren erruagaitik kontratua jagokon epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazinoak ezarri dauen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango dau, behin betiko bermearen gainean.

22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA.-

Kontratazino organoak uko egiten badeutso deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura barriz hastea erabakitzen badau, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko deutse, eta Europako Batzordeari be jakinaraziko deustso erabaki hori kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazino organoak baino ezin daike erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dabezan gastuak konpentsatuko jakez, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazinoaren erantzukizuna arautzen dabezan printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengaitik baino ezin izango jake uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede beragaz beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diran arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez dau eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.-

Baldintza-agiri honen arabera egin behar dan kontratua administrazino-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez dan guztiari jagokonez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazinoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazinoen kontratazinoan erabili beharreko gainerakoak be.

Administrazino-baldintza zehatzen agiri honen eta espedienteagaz batera doan dokumentazino teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24.- KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.-

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazino arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diran erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dagozan obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dagozan eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diran zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa daukien zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.

113. artikuluan arautzen dan larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emongo ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dagozan kasuetan emoten diran 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekaz loturiko kontratazino organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horreek esleipena bertan behera uztea edota esleipen barri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailak hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen daben baldintza agiria, lizititazino iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dabezan agiriak; tramite ekintzak, beti be azken horreek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badabe, prozedura jarraitzea eragozten badabe edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badabe. Prozedura jarraitzea eragozten daben tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailen baztertzea erabakitzen daben Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten deuten tramitazio akatsak espedientea egitea jagokan organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango deusez interesdunek, zuzendu daiezan, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten deusez irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dabezan pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dabe, edo errekurtsoaren xedea diran erabakiengaitik kaltetuak izan daitezkanak.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dabe errekurtsoak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horreek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badabaz, toki erregimen eta kontratazio arloari jagokonean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen dan Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu daben organo berak izango dau eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsoa aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko dau kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsoaren objektu izango dan prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori errekurtsoaren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezartzen dan epe barruan egin beharko dau.

Kontratazio arloko errekurtso bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsoa pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen danean, epea zenbatzen hasiko da eurak jasotzen diranetik edo lizitatzailerik edo hautagaien ezagutzarako euren eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen danean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen barri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoa lizitazio iragarkiaren aurka jartzen danean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsoaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala bajagoko, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtso bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helaraziko jake gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emongo jake alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu dauen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko jake, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko dau jagokan txosten eta guzti.

Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan emon beharko dau errekurtsoren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren barri interesdun guztiei emon beharko deustie.

Errekurtsoren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko dauz, edo formulatutako asmoak ezetsiko dauz, edo ez onartuzat adieraziko dauz, eta arrazoituta erabakiko dauz aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabideagaz eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko dau, lehiaketa iragarkian, gonbite iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketagaz edo esleipenagaz zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekurtsoren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emongo jako 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoren ebazpenaren aurka administrazioaganako auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

25.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.-

Kontratutik sortzen diran auziak Administrazioaganako auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi be, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoagaz bat etorriz.

Bermeon, 2015eko urriaren 8an